

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4926

EBAZPENA, 2023ko urriaren 16koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen agindu-proiektua.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du Agindu bat egitea Batxilergoko Sari Bereziak arautzeko eta sari horiek emateko baldintzak ezartzeko.

Proiektu honen helburua batxilergoko sari bereziak arautzea eta sari horiek emateko baldintzak ezartzea da. Agindu honek orain arte gaia arautu duten dekretuak ordeztuko ditu, eta horretarako, izaera atemporala izango du, urtero egiten diren Batxilergoko Sari Bereziak arautzeko oinarri izango dena.

Honako izapide hauek egin dira jendaurreko informazioaren ebazpen hau eman den egunera arte:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoa betez; herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoa, arauaren testua egin aurreko kontsulta publikoa bideratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarrita. Bertan, eragindako herritarren eta arauak eragiten dien eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzan dituzten erakunde edo elkarten iritzia jaso da, arauaren xedearekin lotura zuzena duten helburuei dagokienez.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa betez, Hezkuntzako sailburuak hasiera emateko agindua eman zuen 2023ko irailaren 22an, martxoaren 29ko 39/2022 Dekretuak aldatu zuen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 16. artikuluan emandako eskumenak baliatuz.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoari jarraituz, Hezkuntzako sailburuak, 2023ko urriaren 10ean, izapidetzen ari den dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzeko agindua eman zuen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, lege honetan aurreikusitako aldeztu aurretiko kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin behar dira, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoak zuzenean eragiten bazaie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, jendaurrean jartzen da Batxilergo Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen agindu-proiektua, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Martxoaren 29ko 39/2022 Dekretuak aldatu zuen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 16. artikuluan emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

2023ko urriaren 30a, astelehena

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen agindu-proiektua jendaurrean jartzea, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, adierazitako proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 16a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.